



**2016KO ABENDUAREN 20KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren hogeian, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, eta Urtzi Iruin Arruti.

Leire Mendia Arana zinegotzia ez da bertaratu. Andonegi zinegotziak Leire Mendia zinegotziaren ezin etorria adierazten du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko urriaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2017KO AURREKONTUA.-**

Jarraian 2017 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Alkateak onarpenera aurkeztutako 2017ko aurrekontuaren azalpena egiten du. Esaten du aurrekontu honetan egiten dena batik bat 2016ko aurrekontuarekiko funtzionamendu gastuak egokitzea dela 2017ko errealitatera eta inbertsioei dagokionez helburu nagusia Gurutzeko urbanizazioarekin hastea dela eta gainontzeko inbertsioen zuzkidurak behin 2016ko aurrekontua ixten denean zer gelditzen dena kontuan hartuta jarriko direla. Esaten du baita ere konpromiso modura energia aurrezpenaren inguruko azterketa bat burutzea, udal egiturari dagokionean azterketa bat egitea eta Lazkaoko lan gabeziaren inguruko azterketa baten ondoren enplegu plan bat egitea egongo liratekeela.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) alkateak esandakoei erantzunez esaten du beraien batzordean azaldutako gaien aipamena egin duela baina alde batetik zehaztaperik falta ikusten dutela; beraien enplegu sustapenera presazko gaia bezala ikusten dutela eta bestalde enplegu publikoaren hautua egin beharra daukala udalak, eta azken honen inguruan datorren urtean kiroldetik lanpostuarekin gerta daitekeena aipatzen du. Argiteriari buruz ere, beraien lehiaketa publiko baten bidez bideratu nahiko luketela eta presazkoa dela eta hor ere zehaztasun falta ikusten dutela. Eta azkenik, eta hemen aipatu ez bada ere, festen inguruan, aurten izan duen igoera handiak hausnarketa beharko lukeela, bai gastu horiek eta bai herritarrek antolatutako festek izan beharko luketen pisuaz. Sarrerei dagokionean, eta foru funtsaren sarreratik kanpo, zerga eta tasan non eta nola eman diren ez daudela ados. Eta guzti honengatik aurrekontu honen aurka bozkatuko dutela.

Gaiak eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako bost botoz (EH Bildu), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehen.- 2017 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

### 2017KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

#### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.480.500,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.429.600,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.564.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	68.115,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	356.350,00 €
		<b>SARRERAK GUZTIRA .....</b>	<b>6.998.565,00 €</b>

#### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.316.367,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.679.578,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	36.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	706.720,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	348.400,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	31.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	521.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	358.000,00 €
		<b>GASTUAK GUZTIRA .....</b>	<b>6.998.565,00 €</b>



### 2017KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

#### SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	767.142,00 €
<u>SARRERAK GUZTIRA .....</u>			<u>767.142,00 €</u>

#### GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	42.000,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	65.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	40.000,00 €
VII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	0,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	620.142,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA .....</u>			<u>767.142,00 €</u>

### 2017KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

#### SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.480.500,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.429.600,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.564.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	68.115,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	767.142,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	356.350,00 €
<u>SARRERAK GUZTIRA .....</u>			<u>7.765.707,00 €</u>

#### GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.316.367,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.721.578,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	101.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	706.720,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	348.400,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	71.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	521.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	978.142,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA .....</u>			<u>7.765.707,00 €</u>



Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

#### IV.- 2017KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2017ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Alkateak esaten du 2016koen berdinak direla.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, eta bertaratutako guztien adostasunarekin, 2017ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA